

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4245

AGINDUA, 2014ko urriaren 8koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzetarako deialdia egiten duena, 2014. urterako. Izan ere, dekretu horrek euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezarri ditu.

2007ko azaroaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 218. zenbakian 185/2007 Dekretua, urriaren 23koa, euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezartzen dituena. Azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, eta haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan, merkatuetan, marketinean eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzeko laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea.

Dekretu horretako 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtero, dagokion sailburuak hala aginduta, laguntza-eskabideak aurkezteko epea zabalduko da. Bestalde, deialdiko aginduan eduki hauek adierazi behar dira: aurrekontu-kreditu erabilgarria; beka-kopurua eta bakoitzaren zenbatekoa; ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak estrategikotzat eta lehentasunezkotzat jotako deialdi horretako I+G+Bko gaiak edo proiektuak jasotzen dituen eranskina; eta, deialdi horretarako normalizatutako eskabide-eredua jasotzen duen eranskina.

Horiek guztiak horrela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntza eta diru-laguntzei aplika dakizkiekeen gainerako xedapenekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntzak.

1.– 2014. ekitaldirako, 4 urteko iraupena duten 6 laguntza deitu dira prestatzen ari diren ikertzaileentzako programaren barruan, eta 2 urteko iraupena duten 10 laguntza, berriz, teknologo gazteak prestatzeko programaren barruan.

2.– Agindu honetako I. eranskinean daude Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren iritziz 2014ko ekitaldiko deialdian ikertzaile eta teknologoak prestatzeko beka programarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+Bko gaien edo proiektuen zerrendak.

Bigarrena.– Iraupena.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzei dagokienez, laguntzek ondoz ondoko lau urteko iraupena izango dute.

Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez, Dekretuan xedatu da, laguntzek ondoz ondoko bi urteko iraupena edo urtebetekoa izan dezaketela. Kasu honetan, emango diren laguntza guztiek bi urteko iraupena izango dute.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

2014ko ekitaldian, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuak araututa, laguntzen eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– 2014ko ekitaldiko laguntza-eskaerak agindu honen II. eranskinean dagoen eredu normalizatua erabiliz aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak helbide horretan bertan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusitako edozein bide erabili ahalko da. Eskatzaileak eskabidea postetxearen bidez aurkeztu nahi badu, gutun-azal ireki bat eraman beharko du, postetxeko funtzionarioak eskabideari data eta zigilua jarri eta gutuna ziurtatu dezan.

3.– Eskabidearekin bat, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuko 10. artikuluan adierazitako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da. Orobat, komeni da proposatutako curriculum vitae eredu erabiltzea, merituak modu gardenagoan puntuatu ahal izateko. (II. eranskinaren gehigarria).

4.– Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte gehienez.

Bosgarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Laguntza-deialdi hau finantzatzeko bideratu diren kredituek 671.960 euro jotzen dute eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. urteko aurrekontu orokorretatik datoz. Horietatik 51.000 euro 2014ko ekitaldiari dagozkio, eta gainontzeko 620.960 euroak 2015. eta 2018. ekitaldietarako konpromiso-kredituei dagozkie.

Gizarte Segurantzara adskribatzearen ondoriozko gastua (urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoa), 81.564,48 eurokoa da, eta zenbateko horretatik, 1.958,88 euro dagozkio 2014ko aurrekontu-kredituari.

Seigarrena.– Onuradunak.

1.– 2014. ekitaldirako laguntzak eskatzen dituzten lagunek urriaren 23ko 185/2007 Dekretuko 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– 5.1 artikuluko d) idatzi-zatian zehaztutako betekizunari dagokionez, 2014ko ekitaldiko deialdian, goi-mailako titulua, maila ertaineko titulua edo bigarren zikloko lanbide heziketako titulua (LH II) 2010ko ekainean edo geroago lortu behar izan dira.

3.– Beka-eskabidea egin dutenek artikuluko horretan aipatutako betekizunak izan beharko dituzte egiaztatuta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaileak.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzek, urtean, 14.000 euroko diru-zuzkidura izango dute bekak irauten duen bitartean, gehi 489,72 euro urtero Gizarte Segurantzaren kuotarako.

Kontratuak irauten duen bitartean, ikertzailea atxikita dagoen organismo, zentro edo erakundeak 21.563,77 euro jasoko ditu aurretiaz. Ikertzaileek, berriz, 16.330 euroko ordainsari gordina jasoko dute, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuko 16.1.c) artikuluan xedatutakoa gorabehera.

Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat jaso ahalko dute (laguntza bakoitzeko, gehienez, 2.000 euro gehiago eskuratu ahalko dituzte). Aldez aurretik justifikatuta, doktoretza-ikastaroetan matrikulatzeko, zientzia-biltzarretan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko eta abarrerako erabiliko dute diru-kopuru hori.

2.– Teknologoak.

Teknologoak prestatzeko laguntzek, urtean 12.000 euroko diru-zuzkidura izango dute. Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat jaso ahalko dute (laguntza bakoitzeko, gehienez, 1.000 euro gehiago eskuratu ahalko dituzte). Aldez aurretik justifikatuta, kongresu zientifikoetan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko eta abarrerako erabiliko dute diru-kopuru hori.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bidear, eta beraren aurka, berraztertze hau-tazko errekurtsua jarri ahalko dute interesdunek Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da honakoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jartzerik dago Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean honakoa aldizkari berean argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunearan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 8a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEN SAILAK 2014 EKITALDIRAKO LEHENTASUNEZKO ETA ESTRATEGIKOTZAT HARTU DITUEN PROIEKTUAK.

PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILE GAZTEENTZAKO LAGUNTZAK
(4 urteko iraupena)

Proiektuaren titulua	Eskatutako titulazioak
Elikagaiak transformatu eta kontserbatzeko prozesu berriak garatzea.	Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Albaitaritzako Gradua.
Arrantza stockak hobeto ezagutzeko eta horiek kudeatzeko, populazioen genetika-teknikak garatzea.	Biologiako Gradua; Biokimikako Gradua; Genetikako Gradua.
Arriskua elikatze-katean: jatorrian prebalentziaren eboluzioa	Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Albaitaritzako Gradua, Farmaziako Gradua; Elikagaien Teknologiako Gradua; Ingeniaritza Kimikoa.
EAEEn, abeltzaintza-sistemek atmosferara jaulkitako gasak murrizterakoan efizientzia.	Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Informatikoaren Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua
Baso-patogeno gainerakorrak, detekzio goiztiarra eta kontrolerako estrategiak	Basogintzaren Ingeniaritzako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua, Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Kimikako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua.
Ardoa egitearen ondoriozko hondakinak aprobetxatzea	Ingurumen Ingeniaritzako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua.

2014ko urriaren 13a, astelehena

TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZAK.
(Bi urteko iraupena)

Proiektuaren titulua	Eskatutako titulazioak
Akuikulturako pentsuen erabilera nutritiboa zehazteko adierazle metabolikoak	Bioteknologiako Gradua; Itsas Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua.
Pertzepzio sentsorialak aztertzeke metodologiak garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua; Albaitaritzako Gradua.
Ebaluazio integratua egiteko, EAEko uretako ekosistemari buruzko ezagutzea integratzea.	Itsas Zientzietako Gradua, Ingurumen Zientzietako Gradua; Biologiako Gradua; Matematikako Gradua; Informatikako Gradua.
Esne-ardiak larratzea: maneiatzea-sistemak ingurumen- eta ekoizpen-parametroen gainean duen eragina (lurzoruaren egoera eta abeltzaintzaren jaulkipenak)	Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritza Teknikoa; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Biokimikako Gradua; Albaitaritzako Gradua
Zerealen ongarritzea organikoa. Landare eta lurzoruaren diagnostiko nutrizionalean oinarritutik, azalean bota beharreko N mineralaren dosiak doitzea.	Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Informatikaren Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua; Biokimikako Gradua; Geologiako Gradua
Agrosistemetan, landare eta lurzoruaren indizeei doakenez garapena eta laginketak burutzeko, informazio espektrala erabiltzea.	Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua, Informatikaren Ingeniaritzako Gradua; Geologiako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua.
Euskal Autonomia Erkidegoan landutako mahastietako korda-sitsaren eta botritis-aren arteko erlazioa eta elkarreragina.	Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Ingeniaritza Kimikoko Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritza Teknikoa; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Kimikako Gradua
Klima aldaketari egokitutako basogintzako kudeaketarako azpiegiturak monitorizatzea.	Basogintzaren Ingeniaritzako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Biologiako Gradua; Bioteknologiako Gradua; Ingurumen Zientzietako Gradua.
Elikagai berriak prestatzeko prozesuak ahalik eta hobekien baliatzea, eta haien nutrizio-kalitatea balioztatzea.	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua, Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua; Albaitaritzako Gradua; Biologiako Gradua.
Okelaren gantz-azidoen profila zehaztea, eta horrek ekoizpen-sistemarekiko duen erlazioa.	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua; Biologiako Gradua; Albaitaritzako Gradua; Kimikako Gradua; Biokimikako Gradua; Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua.

2014ko urriaren 13a, astelehena

II. ERANSKINA / ANEXO II

EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA <i>Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza</i>	 GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD <i>Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias</i>	BEKAK BECAS Bidali Enviar
--	--	---

ESKATZAILEA / SOLICITANTE

* NAN / DNI: * Jaiotze-data / Fecha Nacimiento: * Sexua / Sexo: E/M G/H
 * Izena / Nombre: * Abizenak / Apellidos:
 * Helbidea / Dirección: * PK / C.P.:
 * Lurraldea / Territorio: * Udalerria / Municipio:
 Telefonoak / Teléfonos: email / e-mail:
 * Gizarte segurantzako zk / N° Seguridad Social:

ESKATZEN DU: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko urriaren 8ko Aginduaren bidez deitutako euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresen inguruan ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko beketakoa bat ematea.

SOLICITA: Le sea concedida una ayuda para la formación de jóvenes investigadores y tecnólogos en el sector agropesquero y alimentario vasco, convocada mediante la Orden de 8 de octubre de 2014, de la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad.

Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte. Gaiak lehenetsun-ordenaren arabera aukeratu dira, eta ordena horri zorrozki jarraituko zaio laguntzak esleitzeaz.

Las personas interesadas podrán solicitar ayuda en cualquiera de los programas, pudiendo elegir hasta un máximo de tres proyectos de entre todos los recogidos en el anexo I. La elección de los temas deberá hacerse de acuerdo a un orden de preferencia que será el rigurosamente seguido en el momento de adjudicación de las ayudas.

Proiektuak / Proyectos:

ORDENA ORDEN	PROIEKTUAREN IZENBURUA ⁽¹⁾ TÍTULO DEL PROYECTO ⁽¹⁾
1	
2	
3	

⁽¹⁾ Datu hauek betetzeko posible diren balioak dokumentu honen azken orrian dituzu.

Los valores posibles para cumplimentar estos datos están disponibles en la última página de este documento.

DATU AKADEMIKOAK / DATOS ACADÉMICOS
--

Titulazioa / Titulación ⁽²⁾:

TITULAZIOA TITULACIÓN	ZEIN ZENTROTAN LORTU DEN CENTRO DONDE SE HA OBTENIDO	NOIZ LORTU DEN FECHA DE OBTENCIÓN

⁽²⁾ Bakarrik adierazi eskatutako proiektuentzat gaitzen duten titulazioak.

Indicar solamente la titulación habilitante para los proyectos solicitados.

(r)en (a)n En , a de

ESKATZAILEAREN SINADURA / FIRMA DEL SOLICITANTE

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeziatu eta dituzi aurka egiteko eskubideez baliu zaitezke. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari datu bat bidaliz, hura baliu tratamenduraren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
 Tef. 945 01 96 44 - Fax 945 01 97 01 - email: ind-alimentarias@ej-gv.es

2014ko urriaren 13a, astelehena

	 <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD</p> <p><i>Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza</i> <i>Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias</i></p>	<p>BEKAK</p> <p>BECAS</p>
--	--	---

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
DECLARACIÓN RESPONSABLE

* NAN / DNI: *Izena / Nombre:

* 1. abizena / Apellido 1: * 2. abizena / Apellido 2:

ADIERAZTEN DU

- a) Ez duela diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dituzten zehapen administratiborik edo penalik jaso, eta ez daukala horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

DECLARA

- a) *Que no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*

 en En , a de

(a)n

ESKATZAILEAREN SINADURA / FIRMA DEL SOLICITANTE

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeziatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatzea, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baliatzen duaren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 96 44 - Fax 945 01 97 01 - email: ind-alimentarias@ej-gv.es

2014ko urriaren 13a, astelehena

EUSKO JAURLARITZA EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA <i>Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza</i>	 GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD <i>Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias</i>	BEKAK BECAS
--	--	---------------------------------

BAIMENAK CONSENTIMIENTOS

BAIMENAK / CONSENTIMIENTOS

Baimena ematen diot, deialdi hau kudeatzen duen organoari, bide telematikoen bitartez edo eskuragarri dauden bideen bitartez administrazio eskudunean honako hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko:

Autorizo al órgano gestor de esta convocatoria a la comprobación, constancia o verificación en la Administración competente por medios telemáticos o en su caso, por los medios que estén disponibles:

- Eskatzailearen nortasun-datuak
Datos de Identidad del Solicitante

(a)n

	en
--	----

	,		a		de	
--	---	--	---	--	----	--

ESKATZAILEAREN SINADURA / FIRMA DEL SOLICITANTE

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeziatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu zaitezke. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baliu tratamenduaren arduraduna (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Generales del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en C/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastián, 1 - 01010 - VITORIA-GASTEIZ
 Tef. 945 01 96 44 - Fax 945 01 97 01 - email: ind-alimentarias@ej-gv.es

2014ko urriaren 13a, astelehena



AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA DOCUMENTACIÓN A APORTAR

Eskabide-orría eta **erantzukizunpeko adierazpena** sinatuta eta horretaz gain, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Pertsona eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- Ikasketen ziurtagiri osoa (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Ziurtagiri horretan egiaztatu beharko dira eskatzailearen kalifikazio guztiak eta kalifikazio horiek lortu zitueneko datak.
- Curriculumama, eskabide honekin batera doan eskemaren arabera, eta bertan aipatzen diren merezimenduak egiaztatzeko egiaztagiriak edo/eta ziurtagiriak. Agiri hauen guztiak bina kopia aurkeztuko dira.
- Errolda-ziurtagiria, 185/2007 Dekretuko bosgarren puntuko 1.b) paragrafoa betetzen dela egiaztatzeko.
- Laguntza proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria laburra (gehienez ere 5 orrialde), kasu bakoitzean gaiari buruzko ezagutza azalduz eta aukeratutako gairako profil akademiko eta profesional egokia duela erakusten duten merezimendu pertsonalak argudiatuz. Agiri hauen guztiak bina kopia aurkeztuko dira.
- Hirugarrenen altaren inprimakia.
- Gizarte Segurantzako altaren fotokopia.

Nolanahi ere, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak eska diezaioke eskatzaileari beka eskaera osatzeko dokumentazio-gehigarria, eskaera hobeto bideratzeko.

Eskaerak honako leku hauetan aurkeztu behar dira:

**EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA**

**Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Donostia-San Sebastián, 1- 01010 VITORIA-GASTEIZ**

Además del **modelo de solicitud** y la **Declaración Responsable** firmados, se debe aportar la siguiente documentación general:

- *Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.*
- *Certificado académico completo (original o fotocopia compulsada) en el que se acrediten todas las calificaciones del candidato, así como las fechas de obtención de las mismas.*
- *Curriculum Vitae, elaborado de acuerdo con el esquema que se adjunta a esta solicitud, acompañado de los justificantes y/o comprobantes que verifiquen los méritos alegados. Esta documentación se aportará por duplicado.*
- *Certificado de empadronamiento en el que se acredite el cumplimiento del párrafo 1.b) del punto quinto del Decreto 185/2007.*
- *Breve memoria justificativa (máximo 5 páginas) de la elección de los proyectos de ayuda, exponiendo en cada caso los conocimientos que del tema se posean y alegando los méritos personales que justifiquen la adecuación de su perfil académico y profesional al tema elegido. Esta documentación se aportará por duplicado.*
- *Impreso de Alta de Terceros.*
- *Fotocopia de alta en la Seguridad Social.*

En cualquier caso, la Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias podrá requerir al solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud de beca.

Las solicitudes se presentarán en:

**GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y
COMPETITIVIDAD**

**Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias
C/ Donostia-San Sebastián, 1- 01010 VITORIA-GASTEIZ**



CURRICULUM VITAEREN EREDUA MODELO DE CURRÍCULUM VITAE

Eskatzaileak erantsi beharko du ondorengo ereduaren arabera Curriculum Vitae:

El solicitante deberá adjuntar un Currículum Vitae según el siguiente modelo:

DATU PERTSONALAK:

- Izen-abizenak.
- NAN.
- Jaioterria.
- Jaiotze-data.
- Helbidea, P.K., Lurraldea, Udalerria.
- Telefonoa.
- Mugikorra.
- Emaila.
- Gida-baimena.

PRESTAKUNTZA:

- Titulu akademikoak eta noiz lortu diren.
- Prestakuntza akademikoa.
- Prestakuntza edo/eta egonaldiak atzerriko prestakuntza-zentrotan.
- Hizkuntzak.
- Prestakuntza osagarria.

ESPERIENTZIA:

- Praktika unibertsitatean edo Euskal Sareko teknologia-zentroetan.
- Praktika nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta elikadura arloko enpresetan.
- Lan-esperientzia.

BILTZARRETAN PARTE HARTZEA ETA ARGITARAPENAK

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

AURKEZTUTAKO MEREZIMENDUEN ZIURTAGIRIEN ZERRENDA

Aurkeztutako merezimenduen ziurtagirien zerrenda jarraian adierazitako ataletan sailkatuta:

- Espediente akademikoa.
- EBeko hizkuntzak.
- Euskara
- Espezializazio-ikastaroak.
- Beste unibertsitate-tituluak.
- Praktika unibertsitatean edo Euskal Sareko teknologia-zentrotan.
- Praktika nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta elikadura arloko enpresetan.
- Zientzia argitalpenetan parte hartu eta/edo kongresuetara joan izana.
- Beste merezimendu batzuk.

DATOS PERSONALES:

- Nombre y apellidos.
- DNI.
- Lugar de nacimiento.
- Fecha de nacimiento.
- Dirección, C.P., Territorio, Municipio.
- Teléfono.
- Móvil.
- E-mail.
- Permiso de conducir.

FORMACIÓN:

- Títulos académicos y fecha de obtención.
- Formación Académica.
- Formación y/o estancias en centros formativos extranjeros.
- Idiomas.
- Formación complementaria.

EXPERIENCIA:

- Prácticas en Universidad o Centros Tecnológicos de la Red Vasca de Tecnología.
- Prácticas en empresas de los ámbitos agrícola, ganadero, forestal, pesquero y alimentario.
- Experiencia laboral.

ASISTENCIA A CONGRESOS Y PUBLICACIONES

OTROS DATOS DE INTERÉS

RELACIÓN DE JUSTIFICANTES DE LOS MÉRITOS

Incluir una relación de los documentos justificativos de los méritos alegados clasificados en los siguientes apartados:

- Expediente académico.
- Idiomas de la UE.
- Euskera.
- Cursos de especialización.
- Otros títulos universitarios.
- Prácticas en Universidad o Centros Tecnológicos de la Red Vasca de Tecnología.
- Prácticas en empresas de los ámbitos agrícola, ganadero, forestal, pesquero y alimentario.
- Participación en publicaciones científicas y/o asistencia a congresos.
- Otros méritos.

2014ko urriaren 13a, astelehena



ESKABIDE HAU BETETZEKO JARRAIBIDEAK INSTRUCCIONES PARA CUMPLIMENTAR ESTA SOLICITUD

ELEKTRONIKOKI BETETZEA

Eskabide hau elektronikoki bete daiteke. Horretarako Adobe Acrobat Reader doaneko aplikazioa (eguneratutako bertsio bat) instalatuta izatea beharrezkoa da. Aplikazio hori helbide honetan jeitsi dezakezu: [Adobe](#). Kasu askotan dokumentuak berak ematen dizu aukera nahi duzun informazioa hautatzeko, datuen sarrera erraztuz.

Aplikazio hori instalatu eta gero, eskabidea ireki eta honela jokatu:

- Eskabidea bete. Egiten diren aldaketak gorde ahal izango dira eskatutako informazioa osatu arte.
- Inprimatu eskabide hori sartutako datu guztiekin. Horretarako botoi bat dago formularioan bertan.
- Bidali eskabidea posta elektronikoz tramitazioa azkarragoa izan dadin. Horretarako ez da behar inolako helbide elektronikorik, botoi bat baitago formularioan bertan, lehen orriko idazpuruaren eskumaldean.

Eskabidea bidali izenpetuta eskatutako dokumentazioarekin batera:

**EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA**

**Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Donostia-San Sebastián, 1- 01010 VITORIA-GASTEIZ**

Edo, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan aurreikusitako bideak erabiliz.


OHARRA: Eskabidea posta elektronikoki bidez bidaltzen bada ere ezinbestekoa da inprimakia izenpetuta dirulaguntzaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzara bidaltzea.

ESKUZ BETETZEA


Eskabidea eskuz betetzen bada, oharxoei buruzko argibide hauek kontuan hartu beharko dira:

- Asterisko bat (*) aurrean dituzten eremuak derrigorrez bete behar dira.
- NAN zuzenki betetzeko hurrengoa kontutan izan behar da:

NAN (Pertsona Fisikoak) / DNI (Personas Físicas)



AIZ (Pertsona Fisikoak) / NIE (Personas Físicas)



CUMPLIMENTACIÓN ELECTRÓNICA

Esta solicitud permite ser rellenada electrónicamente. Para ello debe tener instalada una versión actualizada de la aplicación gratuita Adobe Acrobat Reader. Esta aplicación puede descargarse desde [Adobe](#). El propio documento permite seleccionar la información requerida en muchos de los casos, facilitando así la correcta introducción de los datos.

Una vez instalada dicha aplicación, abrid la solicitud y proceded de la siguiente forma:

- *Rellenad la solicitud. Se podrán guardar las modificaciones que se hagan hasta completar la información requerida.*
- *Imprimid dicha solicitud con los datos introducidos. Para ello existe un botón en la página uno dentro del propio formulario.*
- *Enviad la solicitud por e-mail para que la tramitación de la misma sea más rápida. Para ello no se necesita ninguna dirección de e-mail, ya que existe un botón dentro del propio formulario, a la derecha en la cabecera de la primera hoja.*

Enviad la solicitud, junto con la documentación requerida, firmada a:

**GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y
COMPETITIVIDAD**

**Dirección de Calidad e Industrias Alimentarias
C/ Donostia-San Sebastián, 1- 01010 VITORIA-GASTEIZ**

O por cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común.

NOTA: *Enviar la solicitud electrónicamente no exime, en ningún caso, del envío en plazo del impreso firmado a la Dirección del Gobierno Vasco a la que se solicita la beca.*

CUMPLIMENTACIÓN MANUAL

En caso de rellenar la solicitud a mano, deberán tenerse en cuenta las siguientes notas aclaratorias:

- *Los campos precedidos de un asterisco (*) son de cumplimentación obligatoria.*
- *Para la correcta cumplimentación del DNI se ha de tener en cuenta lo siguiente:*



- Adierazitako eremuetan erabiltzeko zerrendak (nahi den aukerari dagokion kodea erabili behar da):
- Listas a utilizar en los campos indicados (se debe utilizar el código asociado a la opción deseada):

PROIEKTUAK / PROYECTOS

KODEA CÓDIGO	PROIEKTUAREN IZENBURUA TÍTULO DE LPROYECTO
101	<i>Desarrollo de nuevos procesos para la transformación y conservación de productos alimenticios.</i>
102	<i>Desarrollo de técnicas de genética poblacional para mejorar el conocimiento de los stocks pesqueros y su gestión.</i>
103	<i>Riesgos microbiológicos en la cadena alimentaria: evolución de prevalencias en origen.</i>
104	<i>Eficiencia en la reducción de emisión de gases a la atmósfera en sistemas ganaderos en la CAPV.</i>
105	<i>Patógenos forestales emergentes, detección precoz y estrategias de control.</i>
106	<i>Aprovechamiento de los residuos de la producción del vino.</i>
201	<i>Indicadores metabólicos para determinación de utilización nutritiva de piensos de acuicultura.</i>
202	<i>Desarrollo de metodologías para estudios de la percepción sensorial.</i>
203	<i>Integración del conocimiento del ecosistema de las aguas de la CAPV para su evaluación integrada.</i>
204	<i>Pastoreo de ovino lechero: efecto del sistema de manejo sobre parámetros productivos y medioambientales (salud del suelo y emisiones ganaderas).</i>
205	<i>Fertilización orgánica en cereales. Ajuste de la dosis de N mineral a aportar en cobertura en base a diagnóstico nutricional de suelo y planta.</i>
206	<i>Uso de información espectral para el muestreo y desarrollo de índices de suelo y planta en agroecosistemas.</i>
207	<i>Interacción y relación de la botritis y la polilla del racimo en viñedos cultivados en el País Vasco.</i>
208	<i>Monitorización de infraestructuras para la gestión forestal adaptada al cambio climático.</i>
209	<i>Optimización de los procesos de elaboración de nuevos alimentos y validación de la calidad nutricional y sensorial de los mismos.</i>
210	<i>Determinación del perfil de ácidos grasos de la carne y su relación con el sistema de producción.</i>

III. ERANSKINA

DATUEN ALTA / DAGOKION HIRUGARRENA

A

HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK

(1) NAN / IFK

(2) Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena

.....

.....

Helbidea

Posta Kodea Herria

Lurraldea Herrialdea

B

BANKUAREN DATUAK

(1) Bankua (2) Agentzia (3) K D K/Korronea

(4) Jabea

OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

C

Bankoaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

D

Doakion hirugarrenaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

E

Sail edo Erakundearen onespena

Sinadura eta zigilua

Data / / /

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ogasun eta Finantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A) Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.– Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.

Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.

2.– Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.

Pertsona juridikoak: izena edo izen soziala.

B) Banku-datuak.

1.– Bankuaren kode eta izena.

2.– Agentziaren kode eta izena.

3.– Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.

4.– Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo izen soziala, pertsona juridikoen kasuan.

Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

C) Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

Banku-erakundearen sinadura eta zigiluaren ordeztu, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularrak dela dioen bankuaren agiria erabili ahal izango da.

D) Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren, edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.